

Nafarkaria

Nafarroako Gehigarri Berezia / Ostirala, 1991ko Abenduak 27

Hamen eta omen



AINGERU EPALTZA

Bat ematekotan Suge Liluratzaille izena hautatuko nuke nik Alli gure lehendakariarendako. Bertzela ezin konprenitu lehort edo zalapartako borroka eta anti-instituzionaltasunaren ikurra hain denbora luzez bere gain hatu duten batzuegan sortarazten duen miresmena.

Ez diot merezimendurik kenduko Alli jaunari. Ni ere-harrituze utzi naute harek egin dituen batzuek. Nafarroa Oinezera agertua, Euskaltzaindiaren eta Ardanzarekin izaniko bilkurak eta gero negoziaketa dela eta ez dela egin dituen deklarazioek gure Gabrieleke usaindu ere ez zuen estilo baten berri ematen digu eta alde horretatik ez diet ez-ikusiarrena eginen. Berez mintzo da horien denen fabore, UPNko botoemaile eta militante aunitzen artean eragin duten moskeo begibistakoa.

Hainbertzenarekin ere, are gehiago harritzen nau horien denen aitzinean euskaltzale eta abertzaleen eremuan zenbaitek erakusten duen harrimenak. Ez baitira gazte mokoguri eta bizitzak lastu gabeak Alliren egintza horiekin miraz gelditu diren guziak. Aldiz, haien artean badira, egile nahiz begirale, politikaren munduan urte puska egin dutenak ere. Eta hori ikusita inozokeria zenbaiteraino erroturik dagoen herri honetan lehen dudak sortzen zaizkit oraintxe.

Jakintzat uste nuen hitzak haizeak eramaten dituela. Jakintzat ere keinuak horixe baizik ez direla, egin orduko desagertzen diren begi-kliskak. Bada hemen, ordea, iraunezinari iraupena suposatzen dionik eta horrek, politikaren munduan, erridikuluaren atarira garamatza.

Beharbada arras prosaikoia izanen naiz eta poesiaz ez dut gauza haundirik konprenituko. Hala ere gauza batez hagitx seguru nago: keinuak keinu, hitzak hitz, boterean dauden agintarien nahiak nondik nora doazien jakiteko termometro zehatz bakarra, gure sosekin zer eginen duten adierazten duen papera da. Eta Nafarroako Gobernuaren aurtengo aurrekontu proiektuak bizitzaren gorakadaren gaineko indizea ere ez die aplikatzen ez Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiari ez Hezkuntz Departamenduko Euskara Zerbitzuari ere, hau da, gure hizkuntzaren inguruan hemengo Administrazioeant mugitzen diren sail bakarek. Horrek neri gehiago balio dit bortz adierazpen ponposok eta hamaika agerpen disdiratsuk baino.

Hala ere, alferrikakoa da. Hemengo sugerriak dantzan hasiko dira berriz gure Juan Kruzek dultzaina ezpainetara eraman orduko. Finean, badute elkarri zer eskertu.



Gabonetan sinesmen zaharrak agerian

Aintzinean, hiltzela heltzerakoan, eta neguminean sartzerakoan, ohitura zen sua eta argiaren inguruko erritoak egitea, garai hori gaitz ezezagun eta beste makina bat ezbehar zela eta, beldurgarria zelako orduko biztanleendako.

Euskal Herrian, beste hainbeste kulturatan bezalaxe, pertsonaiak sortu ziren honen inguruan, beldurgarri zein babesle, eta baita sua eta uraren inguruko ohiturak eta sinesmenak ere, gaur egun batzuk galduta eta besteak bertan segitzen dutenak, denboraren poderioz denak aldatu samartuta.

Kristautasuna gizartean errotu zenean, sinesmen eta pertsonaia hauek aldatu eta bereganatu zituen, baina denen baitan iraun du gaur arte hasieran zuten kutsuak, ikerlariak astindua.

Hortik Olentzeroa, behiala urte berriaren berriemate zena, eta baita Nafarroako zenbait zonatan oraindik gaur egun irauten duten hainbat ohiturak: gabon supila, errautsarekin gero gaitzak edota ekaitzak uxatzeko; urteko azken ezkilak jo arte herriko iturrien inguruan egotearena, ondoren ura zoriona opatzeko, eta abar luze bat.

Gure Aukerak

ANTZERKIA



Haurrendako antzerki zikloa antolatu du Iruñeko Udalak festa hauetarako, Gaiarre Antzokian eta eguerdiko hamabietan. Euskarazko lanei dagokienez, heldu den ostegunean, urtarrilak 2, Gasteizko Hika taldeak 'Aguro' antzezlan aurkeztuko du. Betiko pertonaiekin, sorgin gaiztoa ortzadarra harrapatzen saiatuko da... Erderazkoak atzo hasi ziren, eta gaur Barcelonako Roseland Musical taldea izanen da ikusgai, 'Flit Flit' izeneko lanarekin. Komedien antzerkoa, intsektuak dira lanaren protagonistak, eta tartean, eulitxoa, bere burua baztertuta ikusten duena. Intsektizida baten etorrerak beren bizitza guztia aldatuko du. Bihar Valenciako Visitants taldeak taularatuko du 'Piratas' lana, etzi Bamballina Titelles 'Jo-Jo' aurkeztuko du, eta etzidamu Mexicoko txotxongiloak izanen dira ikusgai.

'Magin el herrero y su Olenzero' lana taularatuko da, bestalde, Nafarroako Antzerki Eskolak Iruñeko San Agustin kalean duen egoitzan, arratsaldeko 18,30etatik aurrera. Atzo hasi eta astelehena arte iraungo dute emanaldiek. Txokolatea izanen da!!!

MUSIKA



Akelarre taldeak joko du heldu den igandean, hilak 29, Lesakako plazan, arratsaldeko zazpietatik aurrera. Udalak antolatu dituen kontzertu ziklo honetan ere, igande eta jai egunak animatzeko, Arkaitz taldea izanen da entzungai toki berean asteazkenean,

ERRAN DUTE

Jan Urban
Osasunako aurrelaria

«UPNko zinegotziek ez dute ia lan egiten Udalean, soilik batzorde eta udalbatzetara etorritzen bait dira. Ezin dute askoz gehiago egin, baina ahaleginak egin zitzaizkete»

Rafael Orta
Murchanteko alkatea

«Nere argazkien esanahia nere bizitzarena berarena da; irudiaren abenturero bat naiz»

Nicolas Lopez
Argazkilaria

«HBk Legebiltzarrean izan gabe, barruko asko baino errespetu handiagoa izan du, horiek beren probetxurako erabili bait dute».

Patxi Zabaleta
HBko parlamentaria

Norat haize, harat aise

Gerardo Plazari mendizale baztandarrari omenaldia eginen diote datorren igandean Legate mendian, Baztango Mendigoizaleen Elkartearen eskutik. Eguntako eguraldi ederraz profitatuta, Nafarroako bailara famatu hau hobeki ezagutzeko aitzakia ezin aproposagoa duzue garai honetan, mendia nahi duenak, mendia, eta bestela herriak.

Larunbatean helduz gero, badago lo egiteko aukera aunitz, baina bereziki gomendagarriak dira landa turismorako Elizondo eta inguruko herrietan apropos jarriak dauzkatzen baserriak. Horri buruzko informazioarako 22 07 41 telefonora hots egin behar da. Elizondon ikusgarriak dira Arizkunenea, Santiagoko Eliza, eta San Pedro eta Santa Engraziako baselizak, eta inguruak bisitatu nahi izanez gero, bi aukera daude: ondoko herriak ikustea edo zuzenean mendira jotzea.

Baztango herri nagusitik atera eta Iparralderako bidea hartzen bada, Arizkunerako gurutzeta dago handik bide gutira. Bai herri horretan nola Errazunen ikustekoak dira etxe ederrak eta baserri dotoreak, eta Arizkun aipatzekoak dira Ursua dorrea (XV mendekoa) eta Bergararena. Errepideari jarraituz gero Izpegiko mendatea igo daiteke, bai Baztan no-



BEÑAT AZURMENDI

la Baigorriko ikusmira ederrak dituen. Kotxearekin segituz gero, Amaiur eta Azpilkueta ere bisita daitezke.

Mendirako bidea hartzen bada, paisaiak gozatzeaz gain, bereziki garai honetan, trikuharri eta zutarrak aunitz ikus daitezke herriko auzotik ateratzen diren bideak —Berdaritz,

Otsondo, Bagordi, Larrazu- hartuz gero.

Bazkaltzeko arazorik ere ez duzue izango inongo herrietan, ostatu eta taberna ugari bait daude ia inguruko gehienetan. Itzultzerakoan, Zigako miradorea duzu ikusteko, bistari dizdirarako gogo gehiagorik gelditzen bazaio behinik behin.

Urte Berri egunean, arratsaldeko zazpietatik aurrera.

Ganbara taldea izanen da Berako

Kultur Etxean, bihar larunbata, hilak 28, gaueko 22.00etan hasita. Kontzertua bertako Euskara Batzordeak antolatuta izan da.

Joselu Anaiak taldea Elizondoko plazan arituko dira igande honetan, arratsaldeko zazpietatik aurrera.

ASTEKO PERTSONAIAK

Santos Munarriz



Odol emalea

Jarauta kalean jaioa, Berriozarren bizi den 53 urteko iruine seme honek urrezko domina hirukoitza jaso zuen joan den igandean Nafarroako Odol Emaileen Elkartearen eskutik. Santos Munarrizek hirurogei litro odol baino gehiago eman du eta berrogeitamar aldiz baino gehiagotan eman du plasma. Benetako marka Nafarroan. Hemezortzi urtekin hasi zen odola ematen, bere aita zena horren beharrezan izan ondoren. «Aitarekin bizitza luzatu zen franko horri esker, eta anai-arrebok hortik aurrera odol emaleak izatea erabaki genuen», azaldu zuen. Santos Munarriz duela hilabete Madrilen egon zen Espainiako Odol Emaileen festan, eta bertan ere bere saria jaso zuen. Hala ere, umiltasunez jaso zuen saria, esan zuen bezala «garrantzitsuena ez bait da dominak jasotzea, besteak laguntzea baizik».

Olentzero



Nafarroako herri eta hiri guztietako Nafarroako herri protagonista izan da aste honetan Olentzero, Onontzaro, Olentzaro, Orantzaro, Orentzero. Pertsonaia berak izen ezberdina duelako, toki ezberdinetan. Itxura atsegina eta onekoa, Gabonaren berri-mailea izan da heldu zein txikiendako, eta batzuek gainera, dagoeneko opariak jaso dituzte, besteek Errege Eguna heldu arte itxaron beharko badituzte ere. Aspaldian beldurgarria, arrote on bihurtua dauka herriak, baina mota guztietako tankerakoa azaltzen da, bai kantu eta kopletan nola sinismen eta kaleetan ikus daitezkeen irudi guztietan. Hasiera batean soilik mendialdean agertzen bazen ere, gaur egun Nafarroa osoan ikus daiteke, eta esatea badago bera dela kulturalki lurralde honetan zabalduen dagoen ezaugarrietako bat.

Miguel Sanz



Lehendakariordea

UPNren Gobernuak publizitate instituzionala banatzeko segituko dituen irizpideen berri eman zuen Miguel Sanz lehendakariordeak iragan asteartean. Idatzizko prentsari dagokionez, ohizko publizitatea 'Diario de Navarra' egunkarian bakarrik azalduko dela iragarri zuen Sanzek. Erabaki horrek Nafarroako bigarren egunkaria, 'Navarra Hoy', sutan jarri du. Egunkari honen arabera, UPNk bere joera «kritikoa eta independentea» zigortu nahi izan du publizitate instituzionala erretiratzeko. Oposizio alderdi politikoei eta sindikatuak ere Nafarroako Gobernuaren erabakia gaitzetsi egin dute, «informazioa jasotzeko askatasuna murrizten duelako». 'Navarra Hoy' egunkariari PSOEek 400 milioi pezetan 'barkatu' zizkion Gobernuaren zegoenean. UPNk, berriz, diru iturri nagusienetako bat itxi egin dio.

Iñaki Aritza kantautoreak, bestalde, Otsagiko udaletxean joko du heldu den larunbatean, hilak 28, arratsaldeko zortzietan hasita.

Belen pastoralaren bigarren zatia aurkezteko da heldu den larunbatean, hilak 28, arratsaldeko zortzietatik aurrera, Zangozako Santa Catalina plazan. Nora abesbatzarekin batera, Rocamador taldeak, auroroek eta gaiteroek hartuko dute parte lan honetan.

Irubide Abesbatzak gaur ostirala, hilak 27, kontzertua emanen du Iruñeko Gaztedi Etxean, arratsaldeko zortzietan. Sarrera dohainik izanen da.

ZINEMA



'Aurora Boreal' filmea ikusgai dago Iruñean Gabon hauetan. Aukera polita naturari eta gizakumearen arteko harremanei buruz istorio ederra ikusi ahal izateko.

'El hombre de la lluvia' filmea emango dute larunbata honetan Hirugarren Adineko Geletan, Iruñean.

KIROLA



Gerardo Plaza mendizale izan zena- ren aldeko omenaldia antolatu dute datorren igandean, hilak 29, Baztango Legate mendian, bertako mendizaleen elkartearen eskutik.

Kenyari buruz diapositibak izanen dira ikusgai gaur arratsaldeko zazpietatik aintzineran Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean, Lezeta anaien eskutik.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Asteazken zehar 8.30etatik 9etara... Bertatik Bertara Informazio saioa

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 12.00etatik 13.00etara... Informazio Saioa Euskal Herria eta mundu zabala.

HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9

Asteazken zehar OMn 14.45etatik 15.00etara eta FMn 14.00etatik 14.10etara... Herri Kronika.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... Zuri eta Beltz Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketak.

Olentzero eta gabon supila

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Gaboneta-ko garaia heltzen den bakoitzean ohitura eta sinismen zaharrak nagusitzen dira Euskal Herri osoko karrika eta hirietan, eta batzutan gaurko gizartearen ezaugarriekin nahastuta, bestetan huts eta garbiak, franko erakusten digute gure nortasuna eta izaerari buruz. Kantu eta koplak, Olentzeroa, tximiniaren supila, Urte Zaharreko uraren inguruko ekitaldiak, guztiek gogorarazten digute kristautasunak Gabonak bere festa bihurtu baino lehen gure arbasoendako esanahi berezia ere bazutela egun hauek. Gabonek bereizgarri izan dituzten elementu horiek beren izateko arrazoia bazuten lehendik ere, eta nahiz gero kristauen sinismenekin nahastu, kanpoko ezaugarriak aldatu gabe ederki egoki dira mitologia unibertsalera.

Gabonen inguruko festen sorrera eta lehenbiziko aztarnak denboraren zoko ezkontuenean galtzen dira. Herri askok, euskaldunok barne, ekiaren aldeko festa ospatzen zuten hilbeltzean, abenduan, argiaren omenez, eta Elizak, ondoren, Kristoren jaiotza paratu zuen bere lekuan. Horregatik, ohiturek eta usadioek etorrera anitzak dituzte, denboraren poderioz aldatu eta gehitu direnak.

Etxez etxe janari eske joateko ohitura antzinatek dator, eta oso zaharrak dira ere sutegiaren ondoko erritoak eta sinesmenak. Ondorengoak dira dantzak, elizkizunak, Erregeak eta Gabonetako afari ederrak.

Janariak emateko ohiturak lotuta izan ziren haste hastetik gizarte beraren antolakuntzarekin, eta morroiek jauntxoei edota fededunek fraile eta apaizei etxetako produktuak edo egurra ematera behartuta zeuden. Ondoren, eta gizarte mota hau desegin zenean, ohitura bilakatu zen, eta oraindik gaur egun, Burundian, kasu, arkumeak ematen zaizkie lurren jabeen urtean zehar zelaia erabiltzearen truke, dirua ere bertan sartuta badago ere.

Honekin batera, herriko karrika eta auzoetan zehar eskupeko eske ibiltzea ere oso zabaldua zegoen Nafarroa osoan, herriko kale eta auzoetan zehar, eta izen ezberdinekin zonaldeen arabera: 'colodra' Erriberan, 'kurribanda' Artaxonan, 'kozkariak' Goñibar eta Ierjibar, 'pazkuanamorios' Iruñerrian, 'ailandoak' Betelu eta Araitzen, eta abar. Gehienetan garbantzu, txingilak eta babak izaten ziren eskupeko hauek, eta ondoren arraultzak edo txerriak ere gehitu zitzaizkien.

Gaske koadrilek, koplak berezien laguntzarekin, benduba ederra egiten zuten gero jasotakoarekin.

Arrats aldera Olentzeroaren figura nagusitzen zen Nafarroako iparralde osoan, baina gaur egun lurralde osoko ezaugarri eta ezinbesteko pertsonaia bihurtu da. Joa Maria Jimeno Jurio historilariak 'Calendario Festivo de Invierno' bere liburuan agertzen duenez «1972an Tuterako Teba taldeak Olentzeroa honaino ekarri zuenean, pago bat Bardeetan landatu izan balute bezalako inpresioa izan nuen. Hala ere, oso ongi egokitu zen hemengo jaiarekin, eta egun Nafarroa osoan zehar hedatu da».

Pertsonaia honen esanahia, baina, eta euskal mitologian hainbestekin gertatzen den bezala, ez da aski ezaguna, eta Jose Maria Satrustegi Urdaingo apaizak 'Solsticio de Invierno' bere liburuan egin du azterketarik adierazgarrienetakoa.

«Hasieran —agertzen du Satrus-

tegik—, Olentzeroa urtero urtero berritzen den Naturaren indarren berpiztearen sinboloa zen, eta baita urte berriaren berriemailea ere. Kristauen sinesmenak, ondoren, naturaren izpiritua kendu eta jaiotza berri den Kristoren adierazlea izendatu zuen. Era honetan, eta kanpoko ezaugarriak aldatu beharrik gabe, oso ongi egokitzen da mitologia unibertsalarekin, euskal tradizioaren ezaugarriak galdu gabe, beti ere».

Nolanahi ere, zenbait herritan oraindik mantentzen da Olentzeroaren ideia pertsonai gaizkile bezala, eta Uitzin eta Berueten, kasu, igitai eskuetan karriketan zehar ibiltzen zela esaten zieten mutikoei. Hortik ASISKO gure marrazkilariak egin duen ilustrazioa.

Gabon supila ere ezinbesteko partaidea zen, eta oraindik bada, Nafarroako etxe askotako suan. Baztarreko, subilero, txubilar, xuhilau, gauon su-

pila, subila eta abarreko izenekin, gogoko santuak edota falta zirenen omenez erretzen zen Gabon gauan, eta bere errautsak urrea bailiran gordetzen ziren, sendagai eta larreedan-ko onuragarriak zirelakoan.

Satrustegik azaltzen duenez, zehazteke dago oraindik enborra bera edo sua ote zen sinesmenaren benetako helburua. Nolanahi ere, enborraren adarrak frankotan ateratzen ziren ekaitzak zetozenean, eta zenbait gaitzendako ere sendagai bezala erabiltzen ziren. Baina suari ematen dio ikerlariak berebiziko garrantzia. «Suaren bitartez garai honetan dagoen argi faltari aurre egin nahi dio gizasemeak, bera, animalia eta natura osorako hain funtsezkoa dena berreskuratu eta ziurtatu nahian».

Urtearen amaieran, bestalde, eta etorri berria denari agurra emateko, iturrien inguruan biltzen ziren gazteek, urarekin zoriona opatzeko, baina ohitura hau soilik Sakanako



Zenbait herritan duela gutxi arte gorde izan da Olentzeroren ideia pertsonaia beldurgarri gisa, eta karriketan zehar igitai eskuetan jendeari lepoa mozten ibiltzen zela esaten zieten Uitzin eta Berueteko mutikoei.

zenbait herritan mantentzen da gaur egun, bereziki Urdaianen. Bertan, eta ezkiele urteko azken orduak jo arte, iturriaren inguruan egoten dira gazteak eta herriko buruak. Jo orduko, gazteek ura ematen die buruei, eta etorri berria den urterako desio onenak azaltzen dituzte.

Honekin batera, zenbait koplak kantatzen dituzte: *Ur goiena, ur barrenal urteberri egun onal grazia-ekin osasunak pakearekin ontasunak jaungoikoak dizuela egun ona.* Urdaingo ikerlariaren arabera, uraren

erabilera oso lotuta litzateke behiala mundua eta ortziari buruz zeuden sinesmenekin. Munduak eta biziaren sorrerak, sinesmen hauen arabera, oso harreman handia zuten ortzian berean eta itsasoetan zeuden uren arteko orekarekin. Hortik beraz, *ur goren*a eta *ur barrenari* egiten zaizkien erreferentziak.

Urarekin batera ere aipatzekoa da suak, berriro ere, urte berriaren etorrerarekin zuen harremana. Prozesu osoa, baina, udazkenean hasten da, egurra biltzerakoan. Neguan, hotza eta iluntasuna dela eta, goraiatu egiten da, eta urte osoan zehar mantentzen da, txingarren bidez. Txingar hauen esanahia horrela zehazten zuten Mezkirizen: «iduritzen zitzaute Jainkuain amoriua bezala iduku behar ginula etxean». Txingarrak, beraz, ezin ziren inoiz ere itzali.

Horretaz gainera abereen gaitzendako ere sendagaiak ziren, eta supilaren ondarrak behien erroak sendatzeko erabiltzen ziren. Orobat, errautsa ongarrarekin nahasten zen, eta soroetan erabiltzen zen.

Nafarroako musika giroak gorabehera nahiko izan ditu azken urteotan. Hasiera bateko lehortetik zenbait talde atera ziren, Nafarroan ezetik Euskal Herrira eta beste lekuetara ere franko zabaldu zirenak, eta

talde berriendako ispilu eta goldea izan zirenak. Horrek ez zuen eragin sobera, euskal musika taldeeri zegokienez, baina azken urteotan hiru taldek argitaratu dute euren lanak, Balerdi Balerdi, Matraka eta Piskerra. Hirurak zentzu guztietan

arront desberdinak izanik, hirurak lotzen ditu uz-tarri batek: euskara beren abestietan sartzeko ahaleginak, hain zuzen ere, nahiz abesti gehienak gaztelaniaz dituzten. Aitzakia hori hartuta hirurakin egin dugu solas.

Beldurrik ezak atera zuen aurrera Matraka

TXARO SATRUSTEGI / IRUNEA

'Beldurrik ez' izeneko disko urrian atera zuen Matraka taldeak, orain dela lau urte sortutako talde honek egiten duen bigarrena, hain zuzen ere. Iruñeko Oihuka disketxearen eskutik Lasarteko Elkar estudioan grabatu zuten, pasa den ekainean. Hala ere, eta barne arazoak direla eta, aldaketa ugari izan dira taldekideen artean azkeneko hilabeteotan eta, orain taldea osatzen dutenak ez dira grabaketan ibili zirenak.

Taldea sortu zenean zeudenetik bat bakarrik geratzen da, Puri Altsasukoa. Beste bietatik, Janis aspaldidanik dago, eta Arturo berria da. Hiru horiek dira Matraka taldea osatzen dutenak baina beraien esanetan, «norbait gehiago ere sar daiteke».

'Beldurrik ez' disko berriak hamar kantu ditu, horietatik erdia euskaraz eta beste erdia erdaraz. Beraien asmoa, adierazi dutenez, piskanaka-piskanaka abesti guztiak euskaraz egitea da, «oso zaila izan arren, hiruretatik batek bakarrik dakielako euskara». 'Hiletsian', 'Nuklearrak', 'Jone', 'Beldurrik ez' eta 'Lauzo-pean' dira euskaraz dauden abestiak, 'No se porqué', 'Que se dejen ver', 'El dinero', 'Esperándome' eta 'Regla y menstruación', aldiz, gaztelaniazkoak.

Egiten duten musika ez da estilo zehatzekoa, abesti lasaiak gogorrek nahasten bait dituzte. Disko hau aurrekoa baino mantsagoa dela esan daiteke, lasaiagoa. Horrek ez du esan nahi kantu guztiak baladak direnik, baina erritmoa zertxobait moteldu dute. Abestien hitzen aldetik «ildo beretik segitu dugu, baina gaiak pertsonalizatu ditugu, hau da, gure sentimenduak dira abesti gehien mamia», azaldu zuen Purik.

Gai pertsonalak eta gai orokor-koak ukitzen dituzte disko honetan,

hala nola arazo nuklearrak, elizaren gaia, emakumeen egoera, eta abar, baina horiek ere barruko doinuarekin idatziz, nahiko pertsonalak.

Madrilen eta Barcelonan aurkeztu behar dute disko hau, aurrenekoarekin ere probintzi horietan egon bait ziren, eta nahiko arrakasta lortu gainera. Orain dela hiru urte ere, 1988an, Suitza eta Alemanian izan ziren gira batean, hango giroa ezagutzen, eta oso pozik itzuli ziren.

Taldetik alde egin duten biak, Josebe eta Walo, dagoeneko beste taldetan sartu dira. Walo, Mal temple taldeko baterian dago, eta Josebek ere badu beste proiekturen bat, Hausdura horren zergatia azaltzerakoan, grabaketan sortutako istilu batengatik izan dela argitu zuten taldekoek, ez zegoela beste inolako problemarik. Puriren esanetan, «denon artean ongi konpontzeko bidea gehiengoak esaten duena errespetatzea da».

Nafarroako giroa nahiko ondo dagoela uste dute, talde asko sortzen dira, batez ere 'heavy' musika jotzen dutenak. «Baina arazo asko izaten dira, entseiatzeko leku aproposak aurkitzeko, diru laguntzarik ez izatean, eta abar», diote. Hasiera guztiak gogorak dira, baina poliki poliki aurrera jo behar dela garbi dute. «Gu prest gaude edozein lekutan eta edozein momentuan musika jotzera joateko, toki handi edo txikietara».



● Matrakako kideak taldea desegin baino lehen.



● Toño Muro Balerdi Balerdikoa.

Balerdi Balerdi edo musika jotzeko gogo

T.S. / IRUNEA

Balerdi Balerdi taldeak Iruñeko GOR disketxearen eskutik atera du bere lehendabiziko diska, taldea osatu zenetik urte t'erdia pasatu eta gero. Fiebre taldea desegin zenean, Toño Muro rockero famatuak abesti gehiago egiteko gogoak zituela eta, maketak grabatzen hasi zen, eta hortik 'Tapia jauna' lehendabizikoa eta 'Tapia eta Zarastura' bigarrena, hau Sergio Ibarrolaren laguntzarekin. Kantak entzun ondoren Marino Goñi ere animatu zen taldean sartzera, eta Balerdi Balerdi izenarekin

elkarrekin hasi ziren.

1990eko irailean zuzenean azaldu ziren lehendabiziko aldiz. Hortik aurrera hogeiren bat emanaldi egin dituzte, eta askoz gehiago egiteko asmoekin dabilta. Aurtengo otsailan, hirugarren maketa grabatzeko tenorea ailegatu zitzaizen eta Blanka Izkeri deitu zioten organoa jo zezan. Toño, ahotsa eta gitarra, Zara bateria, Marino baxua eta Blanka teklatuak, laurak dira taldea osatzen dutenak.

Motos eta Fiebre taldeetan ibilia den Toño Murok aurkeztu zuen diska Iruñeko La Granja tabernan. «Nik neuk ez nuen espero berriro nire burua, gero eta urdinagoa, eszenatokia ikustea», aitortu zigun. Berak egin ditu diskoan agertzen diren abestiak, bat ezik, Pello Lizarraldekin egin bait zuten 'Tralala' kanta. Beste zazpiak

berarenak dira, 'Kantatu nahi nuke', 'Badago', 'Beti gazte', 'Hautsaren dantza', 'Heldu gabe', 'Inon inoiz ez' eta 'Lore etxean'. Zortziak euskaraz daude, azkeneko taldea desegin ondoren euskara ikasten hasi bait zen Toño, eta hizkuntz horretan abestiak egitea erabaki zuen.

Berak esan zuenez, abestien letrak «kezkatzen nauten gauzak dira, nire pentsamendu eta hausnarketak, azkeneko kanta ezik, 'Lore etxean', hau okupe eskaini bait diet». Mini LPan agertzen diren zortzietatik bi kanta, 'Hautsaren dantza' eta 'Heldu gabe', lehenengo maketatik hartu dituzte, beste bostak, aldiz, azken urte honetan eginak dira.

Ateratako diska hamar pulgadako da, formato berezia, «jendearen arreta geureganatzeko. Aurten LP asko atera dira, eta gurea horietatik nabarmentzeko hamar pulgadako egin dugu», adierazi zuen Toño. Bordeleko Le Chalet estudioan grabatu zuten, urriaren 9 eta 15 bitartean, eta Jean Marc Sigrist eta Pierre Hello izan dira grabaketa teknikariak.

Diskaren azala Mauro Entralgo komikilari eta diseinugileak egin du, oso era berezia eta originalean. Guztira 1.000 diska eta 500 kasete bota dituzte, eta ez dute diska aurkeztuko kontzertu batean. abestiak ezagunak direlako.

Toño Murok aipatu zuen bezala, «esan daiteke bai musikaren, bai hitzen aldetik, Balerdi Balerdi nolokoa den, benetan hamar pulgadako honetan ikus daitekeela». Egiten duten musika 'power pop' eta 'rythm'n blues' estilokoa da, biak nahasiak rockarekin. «Nire barruko ideiak eta obsesioak azaldu nahi izan ditut, askotan ilunegiak izanik ere, baina sentimendu ezezkor horiei argitasuna eta bizitasuna ateratzeko, hor duzu musikaren eritmoa», gaineratu zuen Toño.

Piskerra: Bardeetako rock heldua

IZASKUN IBARRA / IRUNEA

Orain dela zazpi urte hasi ziren Piskerra rock taldekoak elkarrekin kantatzen. Urte guzti hauetan zehar hamaika kantaldi emateaz gain, bi lan daukate grabatuta: 'Apuñalo' eta 'V Centenario' izenekoak, eta duela gutxi 'Demasiado cielo sobre nuestras cabezas' iraupen luzeko euren azken diskoa atera dute kalera RDK disketxe madrildarraren eskutik. Azken egunotan promozio lanetan dabilta eta single bat plazaratu dute horretarako.

Nahiz eta urte askotan jotzeari eutsi, ez dira ezagunak oso Erriberako boskotea, agian oso komertzialak ez izateagatik, ala beharbada ez direlako horretan buru-belarri ibili edota... auskalo!

Taberna batetik bestera, jairik jai ibili ziren egun batean Madrileko RDK disketxearekin harremanetan hasi ziren arte. Orduetik urtebete pasa da, eta emaitza kalean dugu, dudarik gabe Piskerraren indar guztia adierazten duen lehena. hiru urtez aritu dira abesti hauek lantzen bilduma bikain bat kaleratuaren. Horren lekuko ditugu 'Amets bat', 'En la boca del cerdo' edota 'Sueño con serpientes', Silvio Rodriguezen kanta ezagunaren bertsioa.

Orain arte afizioz jotzen omen zuten Piskerrakoek, aitortu digutenez, eta musika seriozki ez bazuten hartzen ere, egun euren jarrera aldatzekotan daude. Bi lehen plastikoak euren kontura grabatu zituzten, bata Iruñean eta bestea Donostian. Azkeneko hau egiteko berriz Madrilerai-

no joan zaizkigu eta RDK disketxe independentearekin grabatzeko parada izan dute, baita hiru urtetarako kontratu sinatu ere.

Profesionalizazioak ekar ditzaiken arriskuak —komertzialtasuna, zenbait baldintza bete beharra— aipatu dizkiegunean, ez direla beldur erantzun digute Erriberakoek. «Egun batean rock and roll-az bizitzeta gustatuko litzaiguke. Bapatean konturatzen zara jotzea dela gustatzen zaizuna, eta beste batek bizikleta edo lapitza hartzen duen bezala guk kitarra eraman nahi genuke beti besapean. Bizitzeko modu bat da: elkarrekin ibili, hemendik hara, gaur hemen eta bihar zeinek daki?... Ez pentsa, ordea, gure hitzak aldatu behar ditugunik komertzial arloetan sartu ahal izateko».

Badakite Piskerra taldekoek gorako bidea oztopoz bete dagoela, baina hala ere baikor agertzen dira. «Guk bezala rock and roll jotzeaz bizi nahi baldin baduzu jokoan sartu behar. Lortu behar dena da jokoan sartzea, beti non gauden jakinda, zentrua inoiz galdu gabe. Hau lortzen baduzu ez duzu zure burua saldu beharrik. Bestela lana bihurtuko zen zure zaletasuna eta hori behin ere ez. Inoiz ez 'patxanga' taldea. Baldintza batzuk bete beharko bagenitu famo-soak izatearren bertan bera utziko genuke».

Nahiz eta taldekoek euskara ez ezagutu, 'Demasiado cielo sobre nuestras cabezas' LPan euskaraz bi abesti grabatu dituzte: 'Amets bat' eta 'Gure etorkizuna'. «Gaztelaniaz idazten ditugu hitzak eta Tuterako

neska batek itzultzen dizkigu. Guk ere zerbait eman nahi genion Nafarroako hizkuntzari, kulturari. Nafarroaren sustraia euskara da, eta guri atsegin zaigu, ezagutu ez arren».

Hain zuzen ere 'Amets bat' kantarekin Madrileko '40 principales' irrati saioan sartzeko zorian egon omen ziren, horrek ekarriko zukeen publicitatearekin. «Baina hango arduradunak argi eta garbi esan zion RDK-ko zuzendariari euskaraz zelako ez zela sartu. Gezurra dirudi baina Madrilen euskarazko abestiak debekatuta daude». Piskerrakoek, ordea, ez dute horregatik amore eman eta gehiagorekin jarraituko dutela jakin erazi digute. «Guk bi kanta besterik ez ditugu euskaraz abestu eta tetelo batzuk hori esateagatik itzuli behar... Ezta pentsatu ere!»

Nafarroako Kantu Txapelketari buruz gogoeta egiteko tenorea

E. PERUTXENA / IRUÑEA

Nafarroako kantu txapelketa iraganik, gogoetari bide emateko tenorea heldu da. Aitzinetik, gogora ekarri beharra dago afizionatuendako txapelketa dela, kantu zaharrak zein berriak abestu daitezkeela eta kantuan aritu diren gehien gehienak propio txapelketarako eraturako talde edota bikoteak izan direla. Hortaz landara, erran ere erran beharra dago, epaimahaiak melodiari, interpretazioari eta hitzei errapartatu diela erabakia hartzerakoan.

Txapelketari azaleko begirada bota eta hauxe erran genezake: partehartzaile aunitz, uste baino gehiago; ikusleak bildu dira, Elizondon gutxiago; oro har, maila ona, eta alderik makurrena Leitzan sufritu genuen soinu txarra eta lotsagarria, Elizondon eta Donezteben konpondu zena. Begirada sakonagoa baldin bada, eta, zehazki errateko, txapelketa guztiak jarraitu ahal izan duenarentako, ordea, alde nabarmenik eskainiko zuten larrazken honetan burutu berri den honek.

Izan ere, kantariak ordu gehiago eman dituzte kantuak prestatzen eta ensaiotan, lana egin dute, eta horren ondorioz, emaitzak begibistakoak izan dira. Bertzetik, azpimarratzekoa izan da bikote gehienek erakutsi duten maila handia: Leitzako Izarra bikotea, Lizarrako Mikel Elizaga eta Miren Larunbe, Lañuntzako Turunbay ahizpak, saritutakoan artean. Baina ez ditzakegu atzendu saririk gabe gelditu izan diren Iruñeko Ahuzki bikotea, Galarrotsak izene-



Doneztebeko Bordatxon izan zen aurtengo finala.

koa eta Rakel eta Paula leitzarrak, batzuk aipatzeagatik. Kalitate handi honek buruhausterik ekarriko zion epaimahaiari, seguru aski.

Taldetan, maila ez zen horren altua izan, baina guzien artean Iruñeko Zaldiko nabarmendu zen ahotsen kalitatearengatik. Taldetan, bertzelde, ezin aipatu gabe utzi Zangozako Rocamador taldekoek Azkueren galbahetik pasatu ondoren eraman zuten Otsagiko erromantze zaharra, 'Xinkuak dizula egun on' izenekoa. Bakarlariei dagokienez, lau ausartu ziren parte hartzera, baina, oro har, ez dira beste bi modalitateen parean ibili.

Beraz, batetik, kantariak egindako

lana, eta bertzetik, bikote frankok eta talde batzuek erakutsitako kalitate izaugarri ona. Horrez gain, kantu berriena ere azpimarratu beharra dago. Euskal kantagintza modernoari ia kantariak eskaini ez dion Nafarroa honetan, bapatean, zortzi kantu berri adituek badu garrantzi handirik. Kontutan izan, aurreko edizioan bi baizik ez zirela izandu, eta, duela bizpahiru urte arte inor guti ibili dela kantu sormena lantzen gure herraldean. Alde horretatik, beraz, kontent egoteko moduko txapelketa izan da.

Hala eta guztiz ere, batzuk kezkatutik dabilta, eta kexu ere bai, nafar kantari gazte eta gaztetxo hauek deus berriak aportatu ez dutelakotz, ez

musikaren aldetik, ez letren aldetik. Durangoko azokarako disko berriek ezer originalik aportatu al dute? Sakanako 'Ortzi' taldea, Lizarrako 'Amaigabe' taldea, Urdiaingo Iñigo Goikoetxea eta bertze batzuk duela urte t'erditik hona ari dira. Oraingoz, behintzat, bide puska txikia baizik ez dute egina, baina bidean doaz eta egingen dute.

Bukatzeke, txapelketaren formulari berari buruz, zer edo zer erran behar da. Lehiaketabidea ona izan da kantariak ateratzeko, kantarien artean harremanak egiteko, eta, behar bada, lehiaketa moduan antolatu izan ez balitz iaz ez legoke kantariak. Baina lehian aritzeak badu bere alde txarrik, joan den egunean Mikel Elizaga kantariak Iruñeko Euskalerria Irratian aipatu zuena: hots, «txapelketa krudela da». Izan ere, Doneztebeko Bordatxon sarituen izenak jakitera eman ondoren, hasarre eta nahigabeak handiak izan ziren kantari batzuegan. Hori dena, ongi aztertu beharra dago.

mintzoak

Sorlekuko postala

● Batzutan sorlekua betirako bizileku bihurtzen da. Horrelakotan figura paisaia aienatzen da, ahotsak azentu beretsuko zarata bihurtzen dira eta bizilagunen begiek ia egunero iristen dituzte lurralde ttipiaren mugak. Leku ezezagunean egindako estropozoak mingarrienak direla ikasi arte bizilagun horrek beldurrik gabe egingen du aurrera.

Halabeharrez urundu behar izan duen askorentzat ez dago sorlekuarena baino izen eztiagorik eta usu errepikatuko du besteek entzuteko moduan, hori izan bait daiteke gehien maite duen solasaldiaren abiapuntua. «Non goa?». «Hangoa». Eta begiek ñir-ñir egiten diote, batez ere ez dagoelako segur, dagoeneko ez dakielako bereizten zerk dirauen bizirik et zerk hilik.

Maiz aski urruntasunak gogoa berotzen digu eta galdera arrisku-tsuena egitera bultzatzen gaitu. Zer gertatzen ote da paisaia intimoan guk aldegin eta gero?

Urteak pasa ahala aspaldi utzitako lekua abandonaturik dagoela uste dugu, hautsez betetako eskentoki huts batean mugitzen gara eta tokiek urpean murgildutako hiri baten soslaia dute guretzat. Irudi hori begi ninietan, itzulera-ko bidean barrena abiatzea deliberatzen dugularik helburutik aldentzen hasten gara. Tinko halere gurean, iraganeko argiez liluratutik.

Behin jaioterrian, hautatutako lekua trenbide zahar bat izan dai-

Aurtengo irabazleak
Bakarlarriak
Irabazlea: Elizondoko Josune Galarregi. 'Ez nau izutzen elur-rak'
Bigarrena: Leitzako Ainhoa Viguera. 'Seaska Kanta'

Bikoteak
Irabazlea: Leitzako Izarra: Tere Mariñelarena eta Maitere Susperregi. 'Ttipia maitagarria'
Bigarrena: Lizarrako Mikel Elizaga eta Miren Larunbe. 'Hamar koplak harturatzeko'

Taldeak
Irabazlea: Iruñeko Zaldiko taldea. 'Astiria mendian'
Bigarrena: Igantziko Unanu taldea. 'Erramun txiki'

Sari bereziak
Sormena: Mikel Elizaga.
Melodia: Izarra bikotea.
Jatorrizkoena: Zangozako Rocamador taldea. 'Xinkuak dizula egun on'
Ahotsa: Aitziber eta Jasone Turunbay ahizpak.
Hitzak: Izarra bikotea.
Entzulegoaren saria: Lañuntzako Turunbay ahizpak.

Telenavarrak euskara sartzeko asmoa du goizetako programazio berrian

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Espainiako telebistak Nafarroan duen ordezkariak —Telenavarrak— prest dauka dagoeneko programazio berria, urtarrilaren 7tik aurrera eskainiko dena. Horretan, asmo eta helburu berriak izango dira, eta aipagarrienetakoa, euskara sartzeko asmoa, goizetan izanen diren magazinean.

Euskararen presentzia Telenavarran beti izan da dexente kritikatu, orain arte soilik eguerdiko informetiboaren laburpena izaten bait zen egunero, bost minutukoa. Enrique Diez de Ultzurrunek hasieran egindakoa, egun Fermin Erbiti Radio Nacionaleko langilea da horren arduraduna.

Programazio berrian, baina, eta oraindik guztiz zehaztuta ez badago ere, euskarak ordu erdiko saioa izanen luke astean behin, goizero egiten diren magazineen barruan, eta horretarako epea otsaila aldera paratu dute Agoitz kalean dagoen etxeko mandatariek.

Saioa Fermin Erbiti berak eman



Telenavarrako Iruñeko egoitza.

OXE

lezake, eta zuzen zuzenean izateko asmoa dute arduradunek.

Programazio berri horretarako dirulaguntzak eskatu ditu Telenavarrak Nafarroako Gobernari, eta han, bertako iturrien arabera, onespenez zabaldu izan du egitasmoak. Hemengo programazioa bultzatzearen alde agertu dira mandatarik nafarrak, eta dirulaguntzak oraindik zehaztu gabe

baldin badaude ere, garrantzizkoak izanen direla esan daiteke.

Horrela, eta duela gutxi Madrileran egin zuen bisitaldian, Serafin Ramirez Telenavarrako zuzendaria eta Jordi Garcia Candau zuzendari orokorrek bildu zen Juan Cruz Alli nafar lehendakaria hain zuzen ere programazio berri honetaz mintzatzeko.

Gazteendako zokoa

Iruñean dauden musika taldeen egoera

UNAI AMEZKETA

Iruñea beti izan da rock talde famatuaren sorburua. Hortxe daude arrakasta izan duten taldeak: Barricada, Tahures Zurdos, eta fama gutxiago baina Iruñean guztiz ezagunak direnak: Satira, Esparto, Linea 2, Taxi Carlo. Iruñerrian 100 talde baino gehiago daude eta talde hauek dauzkaten arazo larrienak beti berdinak izaten dira: entsaiatzeko tokia aurkitzea, dirua lortzea material ona erosteko, organismo ofizialen aldetik ezer ez jartzea edo oso gutxi jartzea...

Urtero Nafarroako Gobernuak Pop-Rock Certamen delakoa presatzen du. Txapelketa honetan talde bakoitzak maketa bat grabatzen du. Bi abesti grabatu ditzake talde bakoitzak bi ordutan. Hemen hasten da lehenengo arazoa, lokala ez duen taldeak grabatu baino lehen ez du entsaiatu eta entsaiatu ez duenak ez du normalean grabaketa ona egingo. Ez dakit kasualitatea den ala ez, baina urtero talde berdinak irabazten dute baina bueno, hori beste arazo bat da.

Iruñea, 185.000 lagun dituen hiriak sei multizine dauzka, ez dakit zenbat kirol elkarte eta bi polikirol-degi nahiko onak. Ba, gaur egun oraindik ez dauka ez kontzertuetarako toki apropos bat ezta entsaiatzeko lokalik ere.

Iruñeko musika taldeen egoera oso larria da. Badaude desegiten direnak entsaiatzeko lekurik ez dutelako. Badago, bai Casa de la Juventud izeneko etxe bat, Gobernuarena, baina berak uzten dituen lokalak entsaiatzeko behintzat ez dira batera aproposak, eta kondizio txarrak dituzte. Lehenbiziz, ez daukate hiru entxufe baino gehiago, insonorizatu gabe daude. Dauden leihoak ezin dira ireki eta dagoen jendea, nazkagarria.

Ondorio bezala atera dezakeguna da Iruñea musika egiteko toki zaila dela eta Udalak, erakunde ofizialek eta guzti horiek ez dutela ezer egingo guzti hau konpontzeko.

Kontzertuak egiteko leku aproposa ez bada egiten, Iruñeko rock taldeok oso gaizki edukiko dugu aurrera ateratzea.



● Iruñean musika talde franko izan arren, rockaren bideari heldu nahi diotenenk oztopo ugari izan ohi dute aurrean. Askok ortu dute hala ere aurrera egitea, argazkian diren Barrikadakoez esate baterako. ANDER GILLENIA

Iratiko Parkea

MIKEL BARBERENA

Denek jakingo duzuen bezala Nafarroako ipar-ekialdean, hau da, Irati aldean, parke natural bat egin nahi du Nafarroako Gobernuak, eta hirietan bizi den jendea ados dago ide horrikin, baina inguruan bizi diren herrien iritzia kontutan hartzen dute?

Argi dago ezetz, Zaraitzu haranean bizi diren % 75 baino gehiagok ez du parkea nahi.

Zergatik ez dute parkea nahi? Lehen arrazoa oso nabaria da: par-

kearen proiektua dirua duen jendearentzat pentsatuta dagoelako, hau da, guztionak dena gutxi batzuen artean gozatzeko pentsatuta dagoelako.

Baina ez da hau arrazoi bakarra, Zaraitzu haranean gazte gutxi gertatzen dira lan egiteko tokirik ez dagoelako, eta gazte hauetariko gehienek zerrategietan lan egiten dute.

Zerrategira ailegatzen den egur asko, Iratitik ekartzen da eta Iratin parke natural bat eginez gero, ezi-

nezkoa izango da zuhaitzak mozteak, beraz lanpostuak murriztuko dira.

Parke natural bat egiteak bere alde ona ere badu, noski, Iratin dagoen orein kopurua biderkatu egingo zela, baina herriko jendea, askotan, ikusiak dituzenez, ez da horretaz konturatzten.

Gainera Zaraitzu haranean bizi den jendeak esaten duen bezala, «oreinak ikusi nahi baldin badituzte zoorra joan daitezela».



Ugatza

Gypaetüs barbatus

Oso urria Nafarroan
Hezurak jaten ditu bereziki
Negu aldean ikus daiteke Piriniotan

Hezur puskatzailea

Piriniotako arroil baten inguruan harrapakari handi bat dabil. Bapatean, hatzamarren artean zeramana bota egiten du, eta, segituan, berarengana lurreratzen da. Ugatza da, eta botatakoa aurretik haratustelan hartutako hezur bat zen, ondoren jan egingo duena.

Ia mitikoa bere ohitura bereziagatik, arrisku larrian dago Nafarroan espezie handi hau, eta azken zentsuek bikote bakar bat zenbatu zuten gure lurraldean.

Zeruan belatz handi bat ematen du hegaldian ari denean, hegoak oso luze eta estuak eta isatsa zorrotza oso bait du. Gertutik ikusiz gero mokuarren azpian dituen luma beltzak antzeman daitezke, bibote antzerakoak, eta kontraste bizia sortzen dutenak bularra eta azpikaldean dituen luma txuri eta gorriskekin. Elikadura hilobietako hezurak izaten dira, aurretik saiek utzitakoak, alegia, eta irentsi ezin duenean aipatutako gisan puskatzen ditu. Arraultzak ere jaten ohi ditu.

Bikote bakoitzak eremu zabal bat izaten du bizileku, eta zenbait txofraki baldin badauzka ere, bakar bat erabiltzen du urte bakoitzean, txandaka. Normalean arrail eta potxetan kokatzen ditu, eta erruteak bi arraultzekoak izaten badira ere, soilik batek egiten du aurrera.

KAZKARROAN

Oporretako planak

Iruñeko bertso eskolan jarritako bertsoa. Gabonetako plan eta asmoez.

Nire oporretako planak hauek dira ondo igaro asmoz joan nere herrira nire lagun denekin neskatiak begira matematikak utzi joan martxa guztira pozik nengo planak beteko balira (bis)

Oporretan daukagun gauzarik txarrena notak etxera ekarri ta bronka gehiena baino hori berdina da ni naiz hoberena gurasoei ahaztuko zaie kateena alde batera utzi behar bait da pena (bis)

Ignacio Gracia

BOSTEKO TTIPIAK

Zenbaki bakoitzeko hitz bakar bat eta bera

1. Herri nafarra	1	2	3	4	5
2. Diruak		2			
3. Igaro	3				
4. Etxe animalia		4			
5. Aintzirak	5				

- Atzera etorri
- Tenteak
- Herri nafarra
- Handi
- Gutziz on

	1	2	3	4	5
1		2		4	
	2				
2					
	4				
5					

- Herri nafarra
- Sosa
- Hutsegite
- Finlandia
- Hala ere

	1	2	3	4	5
1		2		4	
	2				
2					
	4				
5					

Zaharrak berri

Letraduak badaki, probatuak hobeki.

Liburuetan baino hobeki ikasten bitzitzean

Leitza

Ez du sudurretik aborainoko astirik Entzun duena ezin ixilik eduki.

Bera.

Telefonoz:

—Aizu, eroetxea da?
—Ez jauna, konfunditu eginen zinen. Guk ez daukagu telefonorik.

Bizi Bizian

Ekologia edo ingurugiroarekin lotutako gaiek gero eta garrantzi handiagoa hartzen duten garai honetan, ekologia ere bizibidea izan daitekeela erakutsi nahi dute Iruñean osatu den talde batek. Orain desagertutako Rio Arga Eskola Tailerretik ateratakoek Ibaialde enpresa osatu zuten joan den abuztuan. Iruñerriko Mankomunitateak osatu zuen taldea

aurretik emandako ikastaro batean jasotakoa aprobetxatu nahian. Helburua argi zuten hori egiterakoan, ekologiarekin lotutako lanak aurrera eramatea, eta bereziki ibai ertzak berri eta egokitzeko dute. Horretaz gainera, beste zenbait arlotan ere ari dira lanean, eta esan daiteke enpresa gisa aintzindariak izan direla ez Nafarroan bakarrik baizik eta Euskal Herri osoan ere bai.



Ekologia bizibide bihurtu nahian

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Ibaialde Proiektua Rio Arga Tailer Eskolan aritu ziren partaideengandik sortu zen aurtengo abuztuaren 6an, horietariko zortzi elkartu eta hiru urtetan zehar ikasitakoaz beren bizibidea ateratzea erabaki zutenean. Iruñerriko Mankomunitateko ikastaroaren akaberan, enpresaren proiektua aurkeztu zuten Nafarroako Gobernuako Enpresen Iniziatibaren lehiaketara, eta bertatik onespena jaso ondoren, enpresa sortzeari ekin zioten.

Hau «zerbait serioa» zela eta, ikastaro espezializatuetan ere murgildu ziren zortzi partaideak, bai enpresaren kudeaketa nola eraman ikasteko, nola arlo zehatzagoetan ere modu teknikoan prestatuagoak izateko.

Hasieratik hona, eta aurrikuspenak oso baikorrak ez baziren ere, egin dute dagoeneko zenbait lan, hala nola Iruñeko Udalaren Lan Plan gintzan kapatazen lana; Uhartetik igarotzerakoan Arga ibaian dagoen parkearen mantenimendua; eta Ultzama ibaiaren garbiketa Atarrabian. Horietaz gainera, Nartabteko Intxaurtegi haziendaren berriketa lanetan aritu ziren, eta Argako ibaiaren ertzetan zenbait babesleku paratu zituzten Iruñeko Sanduzelai auzoko Biurdana parkean. Orobat, Nafarroan dauden karramarroen sailkapen eta zenbaketarako lanetan hartu dute parte, eta baita Faltzesen izan den ur-espezieen sailkapenean eta Atarrabia zeharkatzerakoan Ultzama ibaiako isurkinen analisisan ere.

Lan horien helbururik azpimagarriena inguruan dagoen landarediaren berreskurapena izaten da, eta horretarako lehendabizi tokiaren azter-



Arga ibaia Iruñeko Magdalena auzotik igarotzerakoan.

JOXE

keta egiten da. Iñaki Piñuela taldeko partaideak azaldu duenez, «begetazioari eta bertan dauden landareen egoerari erreparatu diegu lehendabizi, ea berreskuratu edo aldatu behar den ikusteko. Uraren analisiak ere egiten ditugu, baina horretarako espreski Nafarroako Gobernuak badu dagoeneko enpresa bat, Nafarroa osoko plagintza egiten ari dena».

Behin egoera aztertuta, ertzak jorratzeari ekiten diote, landare txarrak kendu eta dagoena berreskuratuzko, eta ibaiaren arroan ere teknika berriak erabili ohi dituzte, Nafarroan aintzindariak direnak. «Ibaiek higa-

dura sortzen duen lekuetan, 'teknika bigunak' erabiltzearen aldekoak gara. Hau da, zenbait tresna paratzen dugu ibaiaren arroan begetazioa berriro sor dadin eta higadurari aurre egiteko, baina ibaiak karrakatu edo dragatu gabe, horrelako teknikek izugarri izorratzen bait dituzte ibaien arroak, fauna eta landaredi guztia akatzeaz gain».

Batzutan, baina, udalen kezkak ez dira bakarrik ekologikoak, baizik eta paisajistikak ere badira. «Astialditarako tokiak paratzeko eskaerak ere jasotzen ditugu, tokiak txukundu eta gero aprobetxatu ahal izateko, baina

gure lana ez da izan bakarrik leku polita uztea, baizik eta inguru orekatu eta ekologikoa lortzea ere bai».

Enpresa moduan, hiru arlo jorratuko ditu bereziki Ibaialdek. Lehendabizikoa ibai ertzetan dauden ingurugiroak berri, egokitu eta gordeztera dago zuzenduta, beste inguru-neak alde batera utzi gabe, beti ere. Zerbitzu horren barruan hasierako azterketa, proiektu bera eta ondorengo kontserbazioa sartzen da. Bezeroak, kasu honetan, udal eta ingurugiro arloetan ahalmenak dituzten erakundeak izango lirateke.

Enpresaren bigarren arloa ingu-

ruan bertan egin beharreko lanak izango lirateke, hau da, profesionalak edo bulegoek behar dituzten lanak. Arlo horren barruan kokatuko litzateke egin berri duten Nafarroako karramarroen sailkapena eta zenbaketa, Lorea taldea osatzen ari den azterketaren osagarria izango dena. «Arlo horretan —azaldu du Iñaki Piñuelasek— biologo eta aztertzaileen laguntzarako talde gisa aritzen gara. Hau da, beren proiektuendako datuak behar dituzte talde hauek, gero azterketak egiteko, eta gu arduratzen gara datu horiek biltzen. Ibaietan edo basoetan egin beharreko lana egiten, alegia».

Hirugarren arloa oraindik proiektua besterik ez bada ere, nahiko osatua dauka taldeak. Ingurugiroari buruzko hezkuntza bultzatzea izango litzateke xedea, orain arte egindako lanen erakusketaren bidez, bai ibilbide ekologikoekin nola ikusentzuteko lanekin.

Enpresako partaideek Rio Arga eskolan hartu zuten hezkuntza eta formazio tekniko eta teorikoa. Bertan hiru talde zeuden: ibaien ertzetan adituak, monitore-gidak, eta kanpoaldeko haltzairuetan espezializatuak. Orduan egin zuten lanen segimenduak —Zizur Nagusiko intziran berreskurapena, kasu— irakatsi ziren horretan ez zela lana amaitzen, ondorengo lana behar zela. «Orain egiten ditugun lanetan bereziki gomendatzen dugu lanen segimendu iraunkorra ziurtatzea, eskolan egin genituen lanak franko izorratu bait ziren denboraren poderioz. Horretarako, gu geuk egin dezakegu segimendua edo udaletako langileak horretarako paratzea eskatzen dugu, bestela lortutakoaren % 80 gal bait daiteke».

«Ibaiak ditugu gustokoen»

A.B. / IRUÑEA

Ibaialde, enpresa gisa, ez da bakarrik ibaiaren egoeraz arduratzen, baina, haiek onartu dutenez, «hori dugu gustokoen». Nafarroa eta Estatu espainiar osoako ibaien egoeraz mintzatzerakoan, «nahikoa larria» dela azaldu dute. «Gehienetan muzin egin zaio benetako egoerari, eta indarrean dauden lege asko ere ez dira betetzen. Adibidez, bost metrotako pasabidearena —ertzea eta ibiltzeko tokiaren artean ukitu gabe mantendu beharreko inguru— ez da errespetatu orain arte».

Ibairen poluzioak eragin handiagoa dauka faunan landaretzan baino, baina garrantzia ere badu arazo guzti honetan. Horretarako Na-

farroako Gobernuak dauka egitasmo osoa egina, 1989ko otsailaren 9an onartu zen legeak araututa. Hori aurrera eramateko NILSA enpresa osatu zuen gobernuak, eta emandako datuen arabera, aurten poluzioaren % 50 deuseztatuko da lurralde osoan indarrean dauden irazgailuen bidez.


Egitasmoa 1998ri begira dago eginda, eta urte hauetan 10.794 milioi pezeta gastatuko dira horretan. Helburua, sortzen den poluzioaren % 88,7 deuseztatu ahal izatea.

Baina ibaiak aparte, beste eremuak ere landuko ditu Ibaialdek, eta Iruñerriko Mankomunitatearekin basoak birlantatzeko kontratua lotuta dute dagoeneko. Lan honetan Araturiko arazgailutik ateratako lohien erabilera ongarrri gisa aztertu

nahi da zabortegei batek franko kalte duen inguru batean.

Lehendabiziko urte hauen emaitzak espero baina hobekak suertatu zaizkio enpresa berri honi, eta hasieran defizita izango zutelakoan baldin bazeuden ere, % 250 gaintitu da aurrikusitako fakturazioa.

Etekin hauekin azpiegitura sendotu nahi du taldeak, eta materiala eta makinaria da oraingo helburua. Gaur egun, Nafarroara mugatzen dira bere lanak, baina ez dute baztertzeko kanpora ateratzea, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren bitartez. Hori heldu arte kontzientziario lan handia egin behar dela azpimarratzen dute, frankotan, oso ikusgarria ez den lan batendako udalek ez bait dute inbertitzeko joera berezirik.



Zizurko urmaelan Arga Eskola Tailerrek egin zuen lana.

JOXE

Miguel ZestauPilotaria

«Euskaldunok ez dugu ikasi pilota saltzen»

IZASKUN IBARRA / LEITZA

EGUNKARIA.— Hogeitabat urte egin dituzu erremontean profesional bezala. Zein izan dira zuretzat une garrantzitsuenak?

MIGUEL ZESTAU.— Atera nituen lehendabiziko txapelketak izan dira nire karrera markatzaileak. Baita 1981ean banakako txapelkun ordeko izan nintzenez ere, Intxausperen aurka galdu ondoren. Kanpeonato oso gogorra egin nuen eta finala ere halaxe izan zen.

EGUNKARIA.— Hogeitabost urte arte eskuz jokatu ondoren eta figura zinenean erremontera pasa zinen eskuko gaitza zela eta.

ZESTAU.— Ni, herriko mutiko koskorak bezala, eskuz hasi nintzen. 18 urtekin federazioan sartu nintzen eta kanpeonatotako ordua ailegatu zen: GRANV, eta beste zenbait torneo. Espainiako txapelketa izan nintzen urte batean, baina eskutatik problema horixe izaten nuen. Konturatu nintzen hor deus egitekorik ez zegoela eta erremontean probatzeko erabakia hartu nuen. Gauzak horrela Iruñeko eskolara presentatu nintzen Olaberri maisuarengana. Hartatik hasi nintzen ia 25 urte nituela.

EGUNKARIA.— Zure ustez eskuz jokatzeko garrantzitsua da gero pilotari ona izateko beste edozein modalitatean?

ZESTAU.— Bai, niretzako pilota guziena basea eskua da. Eskuz poliki egiten duenak jokatu du bai, nahiz palaz, nahi erremontez... espezialitate guzietan. Ateratzen dira pilotariak hortik pasa gabe baina, zer esango nuke, bete behar den asgnatura da.

EGUNKARIA.— Zer dela eta hainbeste urte onen artean? Zertan datza zure gakoak?

ZESTAU.— Nik uste, kirol bat hartzen duzenean gazte guztien ametsa ahal den maila handiena hartzea dela. Erremontera pasatu nintzenez planteamendu bat egin nion nire buruari: erremontean hasi eta frogatu bat

egin behar dut. Ondo badoa, ikusiko dugu gero pausoka pausoka noraino iristen garen, baina beti buruan sartuta ahal den gorena ailegatzeko. Gauzak lortzeko eta bakoitzak bere helburuak betetzeko konstantzia, ilusioa, preparazioa eta ahal den neurrian zure burua zaintzea da garrantzitsuenak. Nik ilusio handia neukan, meta batzuk jarri nituen eta zortea ere

Gauzak lortzeko eta bakoitzak bere helburuak betetzeko, konstantzia, ilusioa, lana eta ahal den neurrian zeure burua zaintzea da garrantzitsuenak. Nik ilusio handia neukan, meta batzuk jarri nituen, eta zortea ere ez zait falta izan, lesiorik ez dudalako izan».

ez zait faltatu, lesiorik gabe ibili naiz eta. Gero, zuk ireki behar duzu bidea, eta, dudarik gabe, pixka bat balio ere bai. Baina garrantzitsuenak neretzako hori da, jakitea zer nahi duzun eta horretan saiatu gogor. Hitz batean esanda, horretarako bizi.

EGUNKARIA.— Bizitza horretan momentu txarrak ere izaten dira...

ZESTAU.— Pilotan noski, momentu txar asko izaten dira. Nire maila honetan txarrenak izaten dira jendeak diru mordoska bat jokatzeko duenean zure alde eta zu jokoaz kaskar zabilzanean. Urtea luzea da, eta gogorra da maila mantentzea urte osoan. Izaten dira beherakadak, batzuentzat udan eta besteentzat neguan, eta orduan nerbioa joaten zaizu. Orduan animoa behar duzu.

EGUNKARIA.— Apostuak aipatu dituzu eta horiek dakarten ardura pilotarietarako. Sarritan esaten da pilotari batzuek tongo egiten dutela, frontoietan gertatzen den gutzia ez dela garbia.

ZESTAU.— Horretaz gauza bakarra

Miguel Zestau Leitzako erremontistari omenaldia egin zioten joan zen larunbatean bere herrian, 21 urteren buruan erremontea uztea erabaki ondoren. Bi aldiz binakakoan txapeldun, banakakoan beste bitan bigarrena, eta txapela eta torneo franko irabazia, eskuz pilota utzi behar izan zuen gazte zela, eskuak ahulegiak zituela eta. Orain, ez du bere maisutasuna alferrik galtzea nahi, eta Leitzan bertan eskola bat paratzeko asmoa du, «hemengo mutilak oso konstanteak bait dira, afizio handiak eta sakrifikuak». Zestau beraren ispilu.

egunak. — Azpiegitarik ez nabarmena da Leitzako herria. Zergatik uste duzu hainbeste kirolan ospetsuen sorlekua dela?

ZESTAU.— Egia da, herri txikia izateko maila handiko kirolariak ateratzen dira eta esan duzun bezala ez dago azpiegitarik. Hemengo mutilak oso konstanteak dira, afizio handiak eta sakrifikuak. Hori base

Zergatik atera garen hainbeste kirolari ezerririk? Amor propioa, afizioa eduki eta saiatu garelako. Hemengo jendea nik hori ikusten diot, oso saiaturik dela. Nork berak segitu du inoren laguntzarik gabe. Pilotariak kanpora atera gara, harrijasotzaileak beren kontura...»

handia izango genuke eskola bat irekitzeko. Zergatik atera garen? Amor propio hori, afizioa eduki eta saiatu garelako. Hemengo jendea nik ikusten diot, oso saiaturik dela. Bakoitzak berak segitu du inoren laguntzarik gabe. Pilotariak kanpora atera gara, harrijasotzaileak beren kontu, aizkolariak baita ere.

EGUNKARIA.— Galarreta eta Euskal-Jai besterik ez daude erremontetarako. Beste modalitateak zertxobait gehiago zabaldu daude baina ez asko. Pilotak ba al du jarraipenik?

ZESTAU.— Nik uste euskaldunok ez dugula ikasi pilota saltzen. Bi frontoierremontetarako, eskuzko beste lau edo bost eta kitto. Horregatik ea saskibaloia nondik ekarri diguten? Etxean sartu digute, berdin tenisa rekin edo beste zenbait kirolekin. Eta guk ez dugu ikasi gurea zabaltzen. Horretan lan asko egin beharra dago. Zaila dela esaten da baina gaur hasten bagara, hemendik bost hamar urterako dexente egiten zen, ez bagara hasten, ordea, behin ere ez.

EGUNKARIA.— Galarreta eta Euskal-Jai besterik ez daude erremontetarako. Beste modalitateak zertxobait gehiago zabaldu daude baina ez asko. Pilotak ba al du jarraipenik?



Miguel Zestau.

esango nuke. Hori egia izango balitz Galarreta honez gero itxita zegoen. Hotsak dira. Deportistak ez gara sekulan gelditu horri begira. Ahal dugun hobekien egiten dugu lana eta batzutan ongi ateratzen zaizu eta beste batzutan ez hain ongi. Profesional-profesionala denak garbi jokatzeko du, gainera hortxe dago jendearen ardura eta hori ez dago engainatzerik. Nik ezagutu dudana garai horietatik ez da izan, bakarrik dirua jokatu eta galtzen duenak esaten du tongoarena.

EGUNKARIA.— Eta orain uzteko

unea ailegatu denean nola bideratu duzu zure bizitza etorkizunerako?

ZESTAU.— Kirol denda bat ireki nuen duela urte parte bat Leitzan. Orain daino gutxi begiratu diot eta nire andreak eramaten zuen. Momentuz horrekin jarraituko dugu, baina beste mira batzuekin, erremontetarako bat jarri edo. Ilusio asko badauzkat buruan, aterako diren edo ez, ikusi egin behar. Leitzan bertan izatea atsegina litzaidake eta nere esku balego bihar bertan hasiko ginen, hemen bai bait dago gaia. Ume asko daude eta gustoa ere bai.

ZVLDI ERDA

NO SKI JA TOR
HAURTEARO
LABURRA IZAN
ZUEN NOSKI
JATORREK
LAISTER HASI
BAIT ZEN
IRAKURTZEN
ETA BERE
BURUA
JANZTEN

